

Barne bakardadearen narrazio enblematiko bat euskaratu du Naroa Zubillagak: 'Ganbara'

- Marlen Haushofer idazle austriarrak ondu zuen eleberria, 1969an, 'Die Mansarde' izenburuean.
- Euskaratutako haren bigarren eleberria da. Naroa Zubillagak berak itzuli zuen 'Horma', 2023an.



Naroa Zubillaga, atzo, *Ganbara* eleberriaren aurkezpenean. ANDONI CANELLADA / FOKU

Garbiñe Ubeda

DONOSTIA— Idazlearekin konektatzeko eta haren lana euskaratzeko, itzultzaileak entzun egin behar izaten omen du aurrera, eta horrexetan aritu da Naroa Zubillaga (Andoain, Gipuzkoa, 1982). Haren zentzumenek Marlen Haushofer idazle austriarraren ahotsari jarri diote arreta aspaldion, eta horri esker heldu dira euskal letretara Haushoferren eleberririk enblematikoenak: *Horma* 2023an, eta *Ganbara* orain. Erein argitaletxearen eskutik plazaratu ditu biak.

Haushoferrek argitara emandako azken eleberria da *Ganbara*, urtebeteren buruan hil baitzen, 50 urte besterik ez zuela. Etxekoandre bat du protagonista, bizimodu egonkor eta arrunteko emakume ezkondu eta ama bat. Egunerokoaren zurrunbilotik atera nahi duenean, ganbarara jotzen du marraztera. Jardun hori ez ezik, leku horretan aurkitzen duen bakardadea ere babesgune

eta ihesbide dira harentzat. Hala, «askatasun beharraren eta norbere ahotsaren sinbolotzat» har daiteke ganbara, Ereineko editore Inazio Mujika Iraolaren ustez.

Emakumearen bizimodua erakuste aldera, astebeteko tartea hartzen du eleberriak: igandetik iganderakoa, hain zuzen. Egun horietarik bakoitzak atal bana osatzen du; zortzi ditu, beraz. Astelehenean, gutun anonimo bat jasoko du protagonistak, eta horrek misterioari zabalduko dio atea. Bertan, gaztea zela idatzitako eguneroko baten orriak agertuko zaizkio protagonistari, eta horrek ezkutatu nahi izandako pasarteei aurrez aurre begiratzera eramango du, ezinbestean. Emakumearen ahotsa dago eleberraren erdigunean. Zubillaga: «Gutunak barrera nahastuko dio. Horren ondorioz, ideia eta pentsamendu olde bat etorriko zaió emakumeari, eta hori jasoko du irakurleak: nola begiratzen dion egunerokoari, hiriko bizitzari edota inguruan dituen pertsonen

arteko botere harremanei». Iragina, hain zuzen, pertsonaia hobeto ezagutzeko bidea da, Zubillagaren esanetan. «Horrela hobeto ulertzen da nolakoa den bera, zer izan zen haren haurtzaroa, gurasoeekin izandako harremana, lehen umeaz erditzean nola heldu zitzaion gorrieria».

Protagonistak marrazten duenari eta esaten duenari ere beren-beregi erreparatu dio euskaratzaileak. «Txoriak aipatzen ditu askotan: txontak, enarak, garrapoak, zozoak, besteak beste. Zozabarrak, adibidez, ez dira zozoa bezala lurtean saltoka ibiltzen, balantzaka baizik. Airean saldoan ibiltzen dira, eta gauean elkarrekin egiten dute lo. Ez dira bakartiak». Hain justu, hori du obsesioetako bat protagonistak: isolamendua, bakardadea. Eta eleberririk hartzen duen epean marraztu nahiko lukeen txoriak hori bera erakutsi behar du; ez dagoela bakarrik, saldoan ibiltzen dela. Zubillagaren aburuz, egunetik egunera doitu duen marraz-

Liburuak «sosegua» eskatzen duela gehitu du euskaratzaileak: «Txoriak eguneroko bizitzan oharkabean pasatzen diren bezala, liburu honek ere irakurketa pausatua eskatzen du. Gertaera ustez axolagabeek, keinuek eta esan gabe geratzen diren horiek zeresan handia baitute».

Aurrera egin beharra

Zubillagarentzat, lehendik entzuna zuen ahotsa hobeto ezagutzeko bidea izan da *Ganbara* itzultzea, bai eta *Horma* eleberriarekin hasitako zikloari segida emateko modua ere: «Han bezala hemen ere, emakumearen aurrera egiteko borroka hori ageri da. *Horma*-n fisikoagoa zen, eta *Ganbara*-n psikologikoagoa da, sotilagoa, ez hain fisiko. Barrutik egiten den borroka da, iraganeko bizipenek hartaratuta».

Bateko eta besteko protagonistak alderatuz, *Ganbara*-ko emakumea «gertukoagoa» dela iritzi dio: «Bizi duen egunerokoa erreala da *Horma*-n baino, eta errazago konektatzen da pertsonaiekin».

Egilearen biografiak hartzen duten tokiaz ere mintzatu da Zubillaga: «Hamabi urterekin, tuberkulosiak eta pneumoniak jota zegoela, sanatorio batean sartu zuten, eta hila batek eman zituen bakartuta. Isolamenduan gaia beti dago haren liburutetan».

Marlen Haushofer (Frauentstein, Austria, 1920 – Viena, 1970) alemanezko literaturaren ahots berezietako bat da. Eleberririk, narrazioak eta irrati gidoiak ondu zituen, baita haur eta gazteentzako testuak ere. Bizirik zela ez zuen aitortza handirik jaso. Gaur egun duen izena eta literaturan hartutako tokia gerora lortutakoa da, feminismoak aldarrikatu ostean, batez ere.

Emakumeen esperientzia kontatzeko abilezia goraiatzeko diote Haushoferri nola kritikarik, hala Erein argitaletxeak ere. Mujika Iraola: «Uxue Razkinek [Ereineko editorea] bultzatu zuen Haushoferren lana itzultzea. Eta arrazoi garbia da: oso idazle modernoa da, eta ez hain ezaguna geure artean. Oso begirada zorrotza eta fina du». ●



«Txoriak egunerokoan oharkabean pasatzen diren bezala, liburu honek ere irakurketa pausatua eskatzen du»

NAROA ZUBILLAGA

Euskaratzailea

ki horrek ispiluan lana egiten du protagonistarentzat: «Beharbada, berak ere izan nahiko luke saldoan modu koordinatuan hegaldatzen den txoria, baina kirrinka eta karranka gehiegi sumatzen du inguruan. Pentsatzeko eta errealtatea ulertzeko modu zorrotzegia dauka». Azkenerako, zortzigarren egunean izaki harri-garri bat paratuko du paperean arkatzen bidez: txoriaren eta herensugearen arteko hibrido moduko bat.